| Instalazioek autokontsumo-erregimen partekatuan funtzionatu beharko dutenez, Iberdrolaren alokairu-kontagailurako kutxa bat hornitu beharko da, baita beharrezko gainontzeko elementuak ere, fusible-kaxa, fusibleak, kableatuak, enbarratuak, etab. | *Debido a que las instalaciones deberán funcionar en régimen de autoconsumo compartido, deberá suministrarse una caja para el contador de alquiler de Iberdrola, así como el resto de elementos necesarios, caja de fusibles, fusibles, cableados, embarrados, etc.* |
| Barruko konexioa Iberdrolak zehaztutako konexio-puntuan egingo da. | *La conexión interior se llevará a cabo en el punto de conexión especificado por Iberdrola.* |
| Instalazio fotovoltaikoek monitorizazio telematikoko sistema bat izan beharko dute, I. eranskinean zehaztutako datuak –horiek gutxienez– erraz eskuratu ahal izateko. | *Las instalaciones fotovoltaicas deberán poseer un sistema de monitorización telemático que permita disponer fácilmente al menos de los datos que se especifican en el Anexo I.* |
| Instalazio horiek Udalaren sisteman integratzeko, inbertsoreen komunikazio-protokoloa eman beharko da, haiek biltegiratutako datuetara sartu ahal izateko. | *Con el fin de integrar estas instalaciones en el sistema del Ayuntamiento, deberá proporcionarse el protocolo de comunicaciones de los inversores para poder acceder a los datos almacenados por los mismos.* |
| Nolanahi ere, beraien ekipamenduekin komunikatzeko softwarea emango da eta, horren bidez, sistemak erregistratutako datu guztiak urrunetik jaso ahal izango dira. | *En todo caso, se facilitará el software de comunicaciones con sus equipos, de manera que a través de su utilización se acceda de forma remota al volcado de todos los datos registrados por el sistema.* |
| | |
| **5. ZERBITZUAN JARTZEA ETA BERMEAK** | **5. *PUESTA EN SERVICIO Y GARANTÍAS*** |
| Adjudikazio-hartzaileak bere gain hartu beharko ditu instalazioaren administrazio-baimenerako beharrezkoak diren kudeaketa guztiak. Beraz, | *El adjudicatario deberá asumir a su cargo todas las gestiones necesarias para la autorización administrativa de la instalación. Por lo tanto, será* |

| | |
|---|---|
| instalazioa abian jarri dela eta energia elektrikoaren autokontsumoaren administrazio-erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duten agiriak eskuratu beharko ditu, baita banaketa-sarera sartzeko eskaera Iberdrola enpresa banatzailearekin tramitatu eta soberakinak sarera saltzeko beharrezko izapideak ere. | *su obligación la obtención de los documentos acreditativos de puesta en servicio de la instalación y de inscripción en el Registro administrativo de autoconsumo de energía eléctrica, así como la tramitación de la solicitud de acceso a la red de distribución con la empresa distribuidora Iberdrola y los trámites necesarios para la venta de excedentes a la red.* |
| Iberdrolari ordaindu beharreko gastuak, horrelakorik egonez gero, Udalaren kontura izango dira; hala ere, adjudikazio-hartzaileak bere gain hartu beharko ditu, beharrezkoa izanez gero, banaketa-sarean sartzeko eskaera tramitatzeko behar diren abalak. | *Los gastos a abonar a Iberdrola, si los hubiera, correrán a cargo del Ayuntamiento, no obstante, el adjudicatario, en caso de ser necesario, deberá hacerse cargo de los avales necesarios para tramitar la solicitud de acceso a la red de distribución.* |
| Adjudikazio-hartzaileak hornikuntza muntatu ondoren entregatu egin beharko ditu hornitutako osagaiei eta materialei buruzko dokumentazio tekniko guztia, "As built" planoak, erabilera- eta mantentze-eskuliburua, komunikazio-softwarea eta abar, euskarri elektronikoan. | *El adjudicatario deberá entregar después del montaje del suministro toda la documentación técnica referida a los componentes y materiales suministrados, planos "As built", manual de uso y mantenimiento, software de comunicaciones, etc …, en soporte electrónico.* |
| Instalazioa martxan jarri aurretik, adjudikazio-hartzaileak honako egiaztapen hauek egin beharko ditu gutxienez: | *Antes de la puesta en servicio de la instalación el adjudicatario deberá realizar al menos las siguientes comprobaciones:* |
| • Sistema guztien funtzionamendua eta abian jartzea. | • *Funcionamiento y puesta en marcha de todos los sistemas.* |
| • Abiarazteko eta gelditzeko probak funtzionamendu-une desberdinetan. | • *Pruebas de arranque y parada en distintos instantes de funcionamiento.* |
| • Babes-, segurtasun- eta alarma-elementuak eta -neurriak probatzea, baita horien jarduna ere. | • *Pruebas de los elementos y medidas de protección, seguridad y alarma, así como su actuación.* |
| • Instalatutako potentzia zehaztea. | • *Determinación de la potencia instalada.* |
| • Probak amaitu eta martxan jarri ondoren, instalazioaren harrera egingo da. Hala ere, Harrera Akta ez da sinatuko egiaztatu arte horniketaren parte diren sistema eta elementu guztiek gutxienez 240 orduz jarraian behar bezala funtzionatu dutela, hornitutako sistemaren hutsunek edo akatsek eragindako etenaldi edo geldialdirik gabe, eta gainera, honako baldintza hauek ere bete arte: | • *Concluidas las pruebas y la puesta en marcha se procederá a la recepción de la instalación. No obstante, el Acta de Recepción no se firmará hasta haber comprobado que todos los sistemas y elementos que forman parte del suministro han funcionado correctamente durante un mínimo de 240 horas seguidas, sin interrupciones o paradas causadas por fallos o errores del sistema suministrado, y además se hayan cumplido los siguientes requisitos:* |

| | |
|---|---|
| • Plegu honetan errekeritutako dokumentazio guztia entregatzea. | • *Entrega de toda la documentación requerida en este pliego.* |
| • Soberan dagoen material guztia erretiratzea. | • *Retirada de todo el material sobrante.* |
| • Okupatutako eremuak garbitzea, hondakin guztien kudeaketa egokia eta guzti. | • *Limpieza de las zonas ocupadas, con gestión adecuada de todos los residuos.* |
| • Adjudikazio-hartzailea behartuta egongo da gerta daitezkeen funtzionamendu-akatsak konpontzera, baldin eta akats horien jatorria diseinuko, eraikuntzako, materialetako edo muntaiako akats ezkutuetatik badator, eta konpromisoa hartzen du akats horiek inolako kargurik gabe zuzentzeko. | • *El adjudicatario quedará obligado a la reparación de los fallos de funcionamiento que se puedan producir si se apreciase que su origen procede de defectos ocultos de diseño, construcción, materiales o montaje, comprometiéndose a subsanarlos sin cargo alguno.* |
| Hornitutako elementu guztiak bai eta instalazioak oro har ere, babestuta egongo dira fabrikazio-, instalazio- edo diseinu-akatsen aurrean, gutxienez hiru urteko bermearekin ekipo guztietan, salbu eta inbertsoreetan –azken hauek gutxienez 5 urteko bermea izan beharko dute– eta modulu fotovoltaikoetan –gutxienez 10 urtekoa bermea izango dute–.Bermeak hasiko dira kontatzen instalazioaren Harrera Akta sinatzen den egunetik aurrera. Era berean, adjudikazio-hartzaileak ezarri duen bermea itzultzeko urtebeteko berme-epea hasiko da kontatzen behin prebentziozko eta zuzenketarako mantentze-lanen epea bukatu eta hortik urtebeteko epea amaitutakoan. | *Todos los elementos suministrados, así como las instalaciones en su conjunto, estarán protegidos frente a defectos de fabricación, instalación o diseño por una garantía de tres años como mínimo en todos los equipos, salvo en los inversores que deberán tener una garantía mínima de 5 años, y los módulos fotovoltaicos que será de 10 años como mínimo. Las garantías se contarán a partir de la fecha de la firma del Acta de Recepción de la instalación. Igualmente, el plazo de garantía de 1 año para la devolución de la garantía depositada por el adjudicatario se contará a partir de la finalización del plazo de un año desde la finalización del plazo del mantenimiento preventivo y correctivo.* |
| Horniduraren ustiapena eten beharko balitz hornitzailea erantzule den arrazoiengatik, edo hornitzaileak bermearen estipulazioak betetzeko egin behar dituen konponketengatik, epea luzatu egingo da etenaldi horien guztizko iraupen berberaz. | *Si hubiera de interrumpirse la explotación del suministro debido a razones de las que es responsable el suministrador, o a reparaciones que el suministrador haya de realizar para cumplir las estipulaciones de la garantía, el plazo se prolongará por la duración total de dichas interrupciones.* |
| Bermeak barne hartuko ditu –behar izanez gero– akastunak izan daitezkeen osagaiak eta piezak konpontzea edo birjartzea, bai eta konponketan edo birjarpenean erabilitako eskulana ere, bermea indarrean dagoen bitartean. | *La garantía comprenderá la reparación o reposición, en su caso, de los componentes y las piezas que pudieran resultar defectuosas, así como la mano de obra empleada en la reparación o reposición durante el plazo de vigencia de la garantía.* |
| Berariaz sartuta gelditzen dira gainontzeko gastu guztiak, hala nola, joan-etorrien | *Quedan expresamente incluidos todos los demás gastos, tales como tiempos de desplazamiento,* |

| | |
|---|---|
| denborak, garraiobideak, ibilgailuen eta erreminten amortizazioa, beste baliabide batzuk eskuratzea, eta ekipoak fabrikatzailearen tailerretan konpondu behar izanez gero horiek jasotzeko eta itzultzeko garraio-gastuak. Era berean, sartu egin behar dira instalazioaren funtzionamenduaren doikuntzak eta balizko erregulatzeak egiteko beharrezko eskulana eta materialak. | *medios de transporte, amortización de vehículos y herramientas, disponibilidad de otros medios y eventuales portes de recogida y devolución de los equipos para su reparación en los talleres del fabricante. Asimismo, se deben incluir la mano de obra y materiales necesarios para efectuar los ajustes y eventuales reglajes del funcionamiento de la instalación.* |
| Enpresa adjudikazio-hartzailea **urtebete batez** (harrera-aktatik aurrera) arduratuko da eguzki-instalazioen **mantentze prebentiboaz eta zuzentzaileaz.** Aldi horretako mantentze prebentiboak ez dio kosturik ekarriko Udalari; instalazioaren prezioaren baitan sartuko da. Ez du kosturik izango, halaber, mantentze-lan zuzentzailea instalaziotik kanpoko arrazoi batengatik gertatzen ez bada (bandalismoa, etab.). | *La empresa adjudicataria se encargará durante **un año** (desde el acta de recepción) tanto del **mantenimiento preventivo como correctivo** de las instalaciones solares. El mantenimiento preventivo durante este período no tendrá coste para el Ayuntamiento, incluyéndose en el precio de la instalación. Tampoco tendrá coste si el mantenimiento correctivo no sucede por una causa ajena a la instalación (vandalismo, etc.).* |
| | |
| **6. HORNITZAILEAREN OBLIGAZIOAK** | **6. *OBLIGACIONES DEL SUMINISTRADOR*** |
| Instalazioak muntatu edo ezartzerakoan, enpresa esleipendunak honako hauek hartu beharko ditu kontuan: | *A la hora de realizar el montaje o implantación de las instalaciones, la empresa adjudicataria deberá de tener en cuenta que:* |
| Adjudikazio-hartzaileak instalazioak muntatu eta abiaraziko ditu, eskaintzari erantsitako proiektuan horri buruz azaltzen den planari jarraituz, udaleko zerbitzu teknikoek onartu ondoren. | *El montaje y puesta en marcha de las instalaciones se llevará a cabo por el Adjudicatario siguiendo el plan que al respecto presente en el proyecto adjunto a la oferta, previa aprobación del mismo por los servicios técnicos municipales.* |
| Hornidura abian jartzeko eta benetan emateko epea ez da **90 egun natural**etik gorakoa izango, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ez da sartzen Iberdrolarekin administrazio-izapideak egiteko behar den denbora. | *La puesta en funcionamiento y efectiva prestación del suministro no superará el plazo máximo de **90 días naturales** contados a partir del día siguiente de la firma del contrato. No se comprende en dicho plazo el tiempo que suponga la tramitación administrativa con Iberdrola.* |
| Horniduraren prezioaren barruan sartzen dira proiektu teknikoen idazketa, segurtasun- eta osasun-azterlan eta -planak, Segurtasun eta Osasunaren koordinazioa, Hondakinen Kudeaketa, Kalitatearen Kudeaketa, instalazio elektrikoaren KEB/OCAren ikuskapen-txostena, baimen sektorialak –halakorik egonez gero–, laborategiko proben entseguak, tramitazioak, legalizazioak eta dokumentu honetan esplizituki zehaztu gabeko beste edozein kontzeptu. Horniduraren prezioaren barruan sartzen dira, halaber, lanak egitean | *Quedan incluidos en el precio del suministro la redacción de los proyectos técnicos, estudios y planes de seguridad y salud, la coordinación de Seguridad y Salud, la Gestión de Residuos, la Gestión de la Calidad, informe de inspección OCA de la instalación eléctrica, autorizaciones sectoriales si las hubiere, ensayos pruebas de laboratorio, tramitaciones, legalizaciones y cualquier otro concepto no especificado explícitamente en este documento. También están incluidos dentro del precio del suministro todas las medidas Seguridad y Salud a ejecutar en la* |

| | |
|---|---|
| bete beharreko segurtasun- eta osasun-neurri guztiak, baita behin-behineko bizi-lerroak gauzatzea ere. | *ejecución de los trabajos, incluso la ejecución de líneas de vida provisionales.* |
| | |
| **7. HARRERA ETA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA** | **7. *RECEPCIÓN Y DOCUMENTACIÓN FINAL*** |
| 7.1 INSTALAZIOAREN HARRERA | *7.1 RECEPCIÓN DE LA INSTALACIÓN* |
| Horniduraren harrera eta instalazioa baldintzatuta dago zeren eta bete egin behar da proben eta kalitate-kontrolaren protokolo bat. Protokoloa oinarrituta dago erreferentziazko memoria teknikoan eta UNE-EN 62446-1 eta UNE-EN 61683 arauetan (UNE-EN 62446-1: Sistema fotovoltaikoen dokumentazioari, abian jartzearen entseguei eta ikuskapenari buruzkoa; UNE-EN 61683: Potentzia-egokitzaileen errendimendua neurtzeko prozedurei buruzkoa). Protokoloak, besteak beste, honako jarduketa hauek bilduko ditu: | *La recepción del suministro e instalación está condicionada al cumplimiento de un protocolo de pruebas y control de calidad basado en la memoria técnica de referencia y en las normas UNE-EN 62446-1 sobre documentación, ensayos de puesta en marcha e inspección de sistemas fotovoltaicos y UNE-EN 61683 sobre procedimientos para la medida del rendimiento de los acondicionadores de potencia, que comprenderá, entre otras, las siguientes actuaciones:* |
| • Sorgailu fotovoltaikoaren eta konexio-koadroen termografia. | • *Termografía del generador fotovoltaico y de los cuadros de conexión.* |
| • Oreka, string bakoitzaren generazio-korronteetan. | • *Equilibrio en las corrientes de generación de cada string.* |
| • Oreka, string bakoitzaren hustasun-tentsioetan. | • *Equilibrio en las tensiones de vacío de cada string.* |
| • String bakoitzaren flotatzeko gaitasuna egiaztatzea, isolamendu-hutsunerik ez dagoela bermatuz. | • *Verificación de la condición flotante de cada string, garantizando que no existen fallas de aislamiento.* |
| • Korronte alternoaren fusibleak konprobatzea. | • *Comprobación de los fusibles de corriente alterna.* |
| • Korronte alternoaren konektoreak nola daude konprobatzea. | • *Comprobación del estado de los conectores de corriente alterna.* |
| • Babes-lurrak nola dauden berrikustea. | • *Revisión del estado de las tierras de protección.* |
| • Produkzio-azterketa, datuak biltzerakoan, gutxienez 240 orduko funtzionamendu-aldian zehar. | • *Estudio de producción durante la recopilación de datos durante un mínimo de 240 horas de funcionamiento.* |
| • Sorgailu fotovoltaikoaren puntako potentzia analizatzea. | • *Análisis de la potencia pico del generador fotovoltaico.* |

| | |
|---|---|
| • Bergarako Udalak kanpoko zerbitzu bat kontratatu ahal izango du instalazio fotovoltaikoaren funtzionamendu egokia eta proben eta kalitate-kontrolaren emaitzak egiaztatzeko. | • *El Ayuntamiento de Bergara podrá contratar un servicio externo para verificar el correcto funcionamiento de la instalación fotovoltaica y los resultados de las pruebas y control de calidad.* |
| Funtzionamendu okerra edo akastuna izanez gero, adjudikazio-hartzaileak bere gain hartuko du kanpoko zerbitzuaren kostua eta, horrenbestez, instalazioa egokitu beharko du, betekizunerako beharrezkoak diren baldintzen arabera, eta kanpoko egiaztapen-zerbitzu berri baten kostua ordaindu beharko du. | *En caso de funcionamiento incorrecto o defectuoso, el adjudicatario se hará cargo del coste del servicio externo debiendo adecuar la instalación según los requisitos necesarios para el cumplimiento y sufragar el coste de un nuevo servicio externo de verificación.* |
| Adjudikazio-hartzailea arduratuko da instalazioak behar bezala abiarazteaz, konpainia hornitzailearen eta kontrol-erakundeen aurrean. | *El adjudicatario será responsable de la correcta puesta en marcha de las instalaciones ante la compañía suministradora y organismos de control.* |
| Harrera-akta ez da sinatuko harik eta egiaztatu arte instalazioko sistema guztiek behar bezala funtzionatzen dutela proben eta kalitate-kontrolaren protokoloaren arabera, hornitutako sisteman hutsuneen edo akatsen ondoriozko etenaldi edo geldialdirik gabe, eta gainera, bete direla erreferentziazko memoria teknikoan adierazitako betekizunak, dokumentazio tekniko guztia entregatzeari, soberako materiala kentzeari, okupatutako eremuak garbitzeari eta abarri dagokienez. | *El acta de recepción no se firmará hasta haber comprobado que todos los sistemas de la instalación funcionan correctamente según el protocolo de pruebas y control de calidad, sin interrupciones o paradas causadas por fallos o errores del sistema suministrado, y que además se hayan cumplido los requisitos indicados en la memoria técnica de referencia en cuanto a la entrega de toda la documentación técnica, retirada del material sobrante, limpieza de las zonas ocupadas, etc.* |
| Instalazioa ez badago jasotzeko moduan, hala jasoko da aktan, eta adjudikazio-hartzaileari jarraibide zehatz eta xeheak emango zaizkio antzemandako akatsak konpontzeko, eta gauzatzeko beste epe bat ezarriko zaio. Epe hori amaitu ondoren, beste azterketa bat egingo da. Konponketa-obrak kontratistaren kontura izango dira. | *En el caso de no hallarse la instalación en estado de ser recibida, se hará constar así en el Acta y se darán a la adjudicataria las instrucciones precisas y detalladas para remediar los defectos observados, fijándose un nuevo plazo de ejecución. Expirado dicho plazo, se hará un nuevo reconocimiento. Las obras de reparación serán por cuenta y a cargo del contratista.* |
| Bermeak hasiko dira kontatzen instalazioaren Harrera Akta sinatzen den egunetik aurrera. | *Los plazos de garantía empezarán a contar a partir de la recepción de la instalación.* |
| | |
| **8. <u>LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA</u>** | **8. *<u>PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES</u>*** |
| Lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, kontratistak bete egingo du enpresa-jarduerak koordinatzeko indarrean dagoen araudian zehaztutakoa. I. Eranskinean kontratistaren | *En lo relativo a Prevención de Riesgos Laborales, el Contratista cumplirá con lo especificado en la vigente normativa de coordinación de actividades empresariales. En el Anexo I se especifican las* |


| | |
|---|---|
| betebeharrak zehazten dira. Langileek behartuta daude jarduteko arauak eta prozedurak betetzera, bai eta, bereziki, makinak, erremintak, instalazioak, produktu arriskutsuak eta norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabili eta erabiltzeari buruzkoak ere. | *obligaciones del contratista. Los trabajadores estarán obligados a cumplir las normas y procedimientos de actuación, y especialmente los que se refieren al uso y utilización adecuada de máquinas, herramientas, instalaciones, productos peligrosos y equipos de protección individual.* |
| Laneko istripuak, gaixotasun profesionalak edo kalte materialak murriztu ahal izateko beharrezkoak izan daitezkeen laneko jarduerei edo ohiturei, erremintei, makineriei edo instalazioak erabiltzeko jarraibideei arau eta prozedura espezifikoak aplikatuko zaizkie. | *Serán objeto de normas y procedimientos específicos, aquellas actuaciones o hábitos de trabajo, instrucciones de manejo de herramientas, maquinaria o instalaciones, que sean necesarios para la reducción de accidentes laborales, enfermedades profesionales y daños materiales.* |
| Era berean, arau bidez arautuko da norbera babesteko ekipamenduak eta jantziak erabiltzea, betiere arlo, eragiketa edo lanpostu bakoitzaren arrisku espezifikoen arabera. | *También será objeto de norma la utilización de las diferentes prendas y equipos de protección individual, en función de los riesgos específicos de cada área, operación o puesto de trabajo.* |
| | |
| **9. ERANSKINAK** | **9. *ANEXOS*** |
| 9.1 **I. ERANSKINA** | *9.1* ***ANEXO I*** |
| **Modulu fotovoltaikoak** | ***Módulos fotovoltaicos*** |
| Modulu guztiek bete beharko dituzte UNE-EN 61215 zehaztapenak (silizio kristalinozko moduluetarakoa), eta baimendutako entsegu-laborategiren batek ziurtatuta egon beharko dute; hori egiaztatzeko, dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da. | *Todos los módulos deberán satisfacer las especificaciones UNE-EN 61215 para módulos de silicio cristalino, así como estar certificados por algún laboratorio de ensayos autorizado, lo que se acreditará mediante la presentación del certificado oficial correspondiente.* |
| Modulu fotovoltaikoak fabrikatzailearen modeloa eta izena edo logotipoa izango ditu argi ikusteko moduan eta ezabatu ezineko eran, bai eta banakako identifikazioa edo serie-zenbakia, fabrikazio-egunarekiko trazagarria. Alboko markoak aluminiozkoak edo altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, eta lurrera konektatuta egongo dira. | *El módulo fotovoltaico llevará de forma claramente visible e indeleble el modelo y nombre o logotipo del fabricante, así como una identificación individual o número de serie trazable a la fecha de fabricación. Los marcos laterales serán de aluminio o acero inoxidable, y estarán conectados a tierra.* |
| Horniduraren instalazioa amaitzean, hornitutako modulu fotovoltaiko bakoitzaren benetako potentzia zehazten duen dokumentu bat entregatu beharko da. | *Al finalizar la instalación del suministro se deberá entregar un documento que especifique la potencia real medida de cada uno de los módulos fotovoltaicos suministrados.* |
| Baztertu egingo da fabrikazio-akatsak dituen edozein modulu; hala nola, edozein elementutan hausturak edo orbanak dituena, zeluletan lerrokadura-falta duena edo kapsulatzailean burbuilarik ez duena. | *Será rechazado cualquier módulo que presente defectos de fabricación como roturas o manchas en cualquiera de sus elementos, así como falta de alineación en las células o burbujas en el encapsulante.* |
| | |

| | |
|---|---|
| **Moduluen euskarri-egitura** | ***Estructura soporte de módulos*** |
| Eraikuntzaren Kode Teknikoak egiturazko segurtasunari buruz ezarritako eskakizunak moduluen euskarri-egiturari aplikatuko zaizkio. | *Las exigencias del Código Técnico de la Edificación relativas a seguridad estructural serán de aplicación a la estructura soporte de los módulos.* |
| Modulu fotovoltaikoetarako beharrezko orientazioa eta inklinazioa, eta muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna kontuan hartuta diseinatuko da. Instalazioa kokatuta dagoen eraikuntza-elementuetan konpontze- edo berritze-lanen bat egin behar izanez gero, instalazioa partzialki desmuntatu ahal izateko, egitura-tarte independenteetan diseinatuko da. | *El diseño de la misma se realizará teniendo en cuenta la orientación e inclinación necesarias para los módulos fotovoltaicos y la facilidad de montaje y desmontaje. Con el fin de que, en el caso hipotético de tener que realizar alguna obra de reparación o reposición de los elementos constructivos sobre los que se asiente la instalación, sea posible el desmontaje parcial de la misma se diseñará la estructura en tramos independientes.* |
| Egituraren nahiz moduluak finkatzeko sistemaren diseinuak eta eraikuntzak jasan beharreko dilatazio termikoak ahalbidetuko ditu, moduluen osotasunari eragin diezaioketen kargak transmititu gabe, fabrikatzailearen argibideei jarraiki. | *El diseño y la construcción de la estructura y el sistema de fijación de módulos permitirá las necesarias dilataciones térmicas, sin transmitir cargas que puedan afectar a la integridad de los módulos, siguiendo las indicaciones del fabricante.* |
| Modulu fotovoltaikorako euste-puntuak nahikoak izango dira, kopuruari dagokionez, kontuan hartuz euskarri-eremua nahiz posizio erlatiboa –moduluetan flexioak ez daitezen izan fabrikatzaileak baimendutakoak baino handiagoak–, eta kontuan hartuz baita modulu-eredurako metodo homologatuak ere. | *Los puntos de sujeción para el módulo fotovoltaico serán suficientes en número, teniendo en cuenta el área de apoyo y posición relativa, de forma que no se produzcan flexiones en los módulos superiores a las permitidas por el fabricante, y los métodos homologados para el modelo de módulo.* |
| Gainera, ziurtatu behar da ez dagoela pare galvanikoa, oxidazioak edo antzeko fenomenorik estalkiaren eta euste-puntuen artean. | *Además, se asegurará la inexistencia de fenómenos como el par galvánico, oxidaciones, u otros semejantes entre la cubierta y los puntos de sujeción.* |
| Moduluen euste-mugek eta egiturak berak ez dute itzalik eragingo moduluen gainean, ezta ere ez dira jarriko eraikinak sortutako itzaletan. | *Los topes de sujeción de módulos y la propia estructura no arrojarán sombra sobre los módulos, ni se colocarán en zonas de sombra producida por el edificio.* |
| Enpresa adjudikazio-hartzaileak instalazioak honela gauzatu beharko ditu: | *La empresa adjudicataria deberá ejecutar las instalaciones de la siguiente forma:* |
| **Inbertsoreak** | ***Inversores*** |
| Inbertsoreak sare elektrikora konektatzeko modukoak izango dira, mota egokikoak horretarako, eta sarrera-potentzia aldakorra izango dute, sorgailu fotovoltaikoak egun bakoitzean eman dezakeen potentzia maximoa uneoro ateratzeko gai izan daitezen. | *Los inversores serán del tipo adecuado para la conexión a la red eléctrica, con una potencia de entrada variable para que sean capaces de extraer en todo momento la máxima potencia que el generador fotovoltaico puede proporcionar a lo largo de cada día.* |

| | |
|---|---|
| Instalatu beharreko inbertsore(ar)en efizientzia europarra ez da inoiz jaitsiko % 97 behera. | *La eficiencia europea del inversor/inversores a instalar nunca será inferior a 97 %.* |
| Inbertsoreek Segurtasun Elektrikoari eta Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzko Europako Erkidegoko zuzentarauak beteko dituzte (fabrikatzaileak ziurtatuko ditu biak). | *Los inversores cumplirán con las directivas comunitarias de Seguridad Eléctrica y Compatibilidad Electromagnética (ambas serán certificadas por el fabricante).* |
| Inbertsoreek datuak jasotzeko sistema bat izango dute, funtzionamenduari buruzko parametro guztiak erregistratuko dituena. Gainera, inbertsorearen egoerari buruzko informazioa erregistratu behar dute, baita sortzen diren alarmak eta gorabeherak erregistratu ere. | *Los inversores dispondrán de un sistema de adquisición de datos que registre todos los parámetros relativos a su funcionamiento. Además, deben registrar información relativa al estado del inversor, así como las alarmas e incidencias que se produzcan.* |
| | |
| **Monitorizazio-sistema** | ***Sistema de monitorización*** |
| Instalazio fotovoltaikoak monitorizazio-sistema bat izango du, zeinak aukera eman beharko duen –betiere denbora errealean eta erraz– gutxienez honako aldagai hauek lortzeko: | *La instalación fotovoltaica estará equipada con un sistema de monitorización el cual deberá permitir la obtención en tiempo real y fácilmente, al menos, de las siguientes variables:* |
| • Moduluen planoan gertatzen den eguzki-erradiazioa, teknologia-zelula baliokide batekin neurtua eta itzalik gabeko leku batean kokatua. | • *Radiación solar incidente en el plano de los módulos, medida con una célula de tecnología equivalente y ubicada en un lugar libre de sombras.* |
| • Tentsio, intentsitate eta potentziaren batez bestekoak korronte zuzenean inbertsorearen sarreran. | • *Voltaje, intensidad y potencia en CC medios a la entrada del inversor.* |
| • Fase(ar)en tentsioa eta intentsitatea eta inbertsorearen irteera-potentzia. | • *Voltaje e intensidad de fase/s y potencia de salida del inversor.* |
| • Egunero sortutako energia eta guztizko energia. | • *Energía diaria producida y energía total.* |
| • Autokontsumitutako energia, betiere banakako autokontsumorako instalazioa bada. | • *Energía auto consumida, siempre y cuando se trate de una instalación de autoconsumo individual.* |


| II. ERANSKINA PLANOAK | *ANEXO II PLANOS* |
|---|---|
| 1. LOTEA: Martinez Irala y Oxirondo | *LOTE 1: Martinez de Irala y Oxirondo* |

- *Martinez de Irala*





<

- *Oxirondo azoka*




| | |
|---|---|
| 2. LOTEA:<br>Osintxuko eta Angiozarko frontoiak eta Labegaraietako kiroldegia | *LOTE 2:*<br>*Frontón de Osintxu y Angiozar y polideportivo de Labegaraieta* |

- *Osintxuko frontoia*



- *Angiozarko frontoia*



- *Labegaraieta polikiroldegia*

